Zk-5819

ERABAKIA, 1998ko azaroaren 27koa, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendariarena, MI-IP03 petrolio-instalazioaren ziurtagiriaren eredua onartzen duena.

Norberetzako petrolio-instalazioen MI-IP03 Osagarrizko Instrukzio Teknikoa onartu zen irailaren 15eko 1427/1997 E.D.aren bidez. Berorretako 33. atalean zera xedatzen da, alegia, instalazio-proiekturik behar ez duten instalazioen kasuan, instalazioaren deskripzioa eta ñabardurak jasoko dituen agiria (memoria labur bat eta krokisa) aurkeztu behar da eta, bigarren, instalazioa OITari egokitzen zaiola kreditatuko duen ziurtagiria ere bai. Horietaz aparte, instalazioaren erantzukizunak beregenatu beharko ditu interesatuak. Instalazioa egingo duen enpresako teknikari arduradunak izenpetu egin beharko ditu biak; hala ere, ez da difinitzen erabili beharreko formatoa.

Bestalde, 34. atalean instrukzioan jasotakoak bete egin behar direla xedatzen da, betetze-modua definitu gabe.

Zera kontuan hartuta: aipatu diren agiri horien edukia argitu egin behar da; aurkeztu beharreko agiriak sinplifikatu egin behar dira eta, gainera, kasu ezberdinetan aplikatu behar diren irizpideak bateratu egin behar dira.

Zera kontuan hartuta: Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren 3. aldaketari buruzko urriaren 14ko 227/1997 Dekretuan xedatzen denaren arabera, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendaritza da, xedapen hori aplikatzeko eskumena duen organua. Ondorioz, hauxe

ERABAKI DUT:

1.– Erabaki honetako eranskinean jasotzen den agiria onartzea, MI-IP03 Instrukzioan jasotzen direnak betetzen direla kreditatzeko bide gisa. Proiekturik behar ez duten instalazioen kasuari dagokio hori.

2.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko azaroaren 27a.

Industri, Energi eta Meategien
Administraziorako zuzendaria,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

N°-5819

RESOLUCIÓN de 27 de noviembre de 1998 de la Directora de Administración de Industria, Energía y Minas, por la que se aprueba el modelo de certificado de instalación petrolífera MI-IP03.

El R.D. 1427/1997 de 15 de septiembre aprueba la Instrucción Técnica Complementaria MI-IP03 de instalaciones petrolíferas para uso propio. En su artículo 33 establece, para las instalaciones que no necesiten proyecto de instalación, la obligación de presentación de un documento (memoria resumida y croquis) en el que se describa y detalle la misma, así como un certificado acreditativo de la adaptación de la instalación a la ITC, responsabilizándose de la instalación, firmados ambos por el responsable técnico de la empresa instaladora de la obra, no definiéndose los formatos a utilizar.

Por otra parte, en el artículo 34 se indica la necesidad de cumplimiento de la Instrucción, sin definirse el modo de realizarlo.

Considerando la necesidad de aclarar el contenido de estos documentos y tratando de conseguir una simplificación de la documentación que debe aportarse, así como la unificación de criterios en los diferentes casos de aplicación.

Considerando que la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas es el Órgano competente para la aplicación de la citada disposición, de conformidad con el Decreto 227/1997, de 14 de octubre, de 3.ª modificación del Decreto por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

RESUELVO:

1.– Aprobar el documento que figura en el Anexo a esta Resolución como medio de acreditación del cumplimiento de la Instrucción MI-IP03, en el caso de instalaciones que no requieran proyecto.

2.– Publicar esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz a 27 de noviembre de 1998.

La Directora de Administración de Industria, Energía
y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.